Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abuztuaren 24a, astelehena — 160 — Lunes, a 24 de agosto de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*385 LI/2020 Foru Agindua, abuztuaren 10ekoa, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatuarena, % 75 [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatuan oinarritutako produktu fitosanitarioak lurrean aplikatzeko zenbait jarraibide ezartzen dituena, Gipuzkoako mendietan, Pinus radiata eta Pinus nigra sailei hosto galera eragiten dizkieten gaitz kriptogamikoei aurre egiteko.*

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Foru Diputatuak 2020ko abuztuaren 10ean ondorengo agindua eman du:

27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzkoak, eskumen esklusiboa ematen die erakunde horiei bai mendi, aprobetxamendu eta baso zerbitzuen arloan, bai nekazaritza eta baso lurrak zaintzeko eta hobetzeko esparruan (7.a.9 artikulua), eta baita ere landare osasunaren arloan erakunde komunek emandako arauak garatzeko eta gauzatzeko esparruan (7.b.1 artikulua).

Bestalde, 2006ko urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Mendiei buruzkoak, 74.1. artikuluan honako hau ezartzen du: «Baso Administrazioari dagokio Euskadi osorako Erakundeek emandako arauak garatzea eta gauzatzea mendietako, enbor biltegietako eta bertatik ateratako produktuetako izurriteen eta gaitzen azterketa, zaintza, kokapen, eragin eremuaren mugaketa eta iraungipenari dagokionez, terrenoen eta bertako ekoizpenen jabetza eta ezaugarriak edozein direla ere».

Era berean, 14/2018 Foru Dekretuak, maiatzaren 15ekoak, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, departamentu horren eginkizunen artean jasotzen du «Baso izurriteak eta gaixotasunak prebenitu, atzeman eta suntsitzea».

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Nekazaritza Ekoizpenaren Osasunerako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko abuztuaren 4ko Ebazpenaren bidez, salbuespenez baimentzen da % 75 [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatua duten produktu fitosanitarioak merkaturatzea eta lurretik aplikatzea, Pinus radiata eta Pinus nigra sailei hosto galera eragiten dizkieten gaitz kriptogamikoei aurre egiteko, produktuon erabilera kontrolatu eta mugaturako ebazpen horretan ezarritako baldintzetan eta epean.

Ebazpen hori arau hauetan oinarritzen da: 1107/2009 (EE) Erregelamenduan (Parlamentuaren eta Batzordearena, 2009ko urriaren 20koa), 43/2002 Legearen 34. artikuluan (azaroaren 20koa, Landare Osasunari buruzkoa) eta 971/2014 Errege Dekretuaren 7. artikuluan (azaroaren 21ekoa, produktu fitosanitarioak ebaluatzeko prozedura arautzen duena).

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Orden Foral 385 LI/2020, de 10 de agosto, del diputado foral de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, por la que se establecen instrucciones para el uso en aplicación terrestre de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75 % [WG] P/P contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en rodales de Pinus radiata y Pinus nigra de montes de Gipuzkoa.*

El Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, con fecha 10 de agosto de 2020 ha dictado la siguiente Orden:

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos» atribuye a éstos competencia exclusiva en materia de «montes, aprovechamientos, servicios forestales... y conservación y mejora de suelos agrícolas y forestales» (art. 7.a.9), así como el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de sanidad vegetal (art. 7.b.1).

Por su parte, el artículo 74.1 de la Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa, establece que «corresponde a la Administración Forestal el desarrollo y ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes del País Vasco, en lo concerniente al estudio, vigilancia, localización, delimitación de zonas atacadas y extinción de plagas y enfermedades de los montes, depósitos forestales y de los productos que de ellos se obtienen, cualesquiera que sean la propiedad y características de los terrenos y de sus producciones».

Asimismo, el Decreto Foral 14/2018, de 15 de mayo, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, recoge entre las funciones del mismo las de «prevención, detección y extinción de plagas y enfermedades forestales».

Mediante Resolución de la Dirección General de Sanidad de la Producción Agraria, del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, de fecha 4 de agosto de 2020, se autoriza excepcionalmente la comercialización y el uso en aplicación terrestre de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75 % [WG] P/P contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en rodales de Pinus radiata y Pinus nigra, en las condiciones y plazo que se indican en dicha Resolución, para una utilización controlada y limitada.

Esta Resolución tiene su base normativa en lo dispuesto en el Reglamento (CE) número 1107/2009, del Parlamento y del Consejo, de 20 de octubre de 2009, en el artículo 34 de la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de Sanidad Vegetal y en el artículo 7 de Real Decreto 971/2014, de 21 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de evaluación de productos fitosanitarios.

EK\CV GAO-I-2020-04158

Hori horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Garapeneko Foru Diputatuak,

EBAZTEN DU

*1. artikulua. Xedea.*

Foru agindu honen xedea da % 75 [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatua duten produktu fitosanitarioak lurrean aplikatzeko baldintzak ezartzea, Gipuzkoako mendietan Pinus radiata eta Pinus nigra sailei hosto galera eragiten dizkieten gaitz kriptogamikoei aurre egiteko.

*2. artikulua. Tratamenduak.*

Aurreko artikuluan aipatutako tratamenduak burutu ahal izango dira, betiere betetzen badituzte Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Nekazaritza Ekoizpenaren Osasunerako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko abuztuaren 4ko Ebazpenak ezarritako baldintzak. Ebazpenaren bidez, salbuespenez baimentzen da % 75 [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatua duten produktu fitosanitarioak merkaturatzea eta lurretik aplikatzea, Pinus radiata eta Pinus nigra sailei hosto galera eragiten dizkieten gaitz kriptogamikoei aurre egiteko, produktuon erabilera kontrolatu eta mugaturako ebazpen horretan ezarritako baldintzetan eta epean:

a) Produktu fitosanitarioak eta horiek erabiltzeko baldintzak:

1. % 75 (WG) P/P oxido kuprosoaren formulazioan oinarritutako produktu fitosanitarioak dira.

2. Aplikazio bakoitzeko dosia: % 0,1-0,2 (1-1,4 kg, produktu/ha).

3. Gehienez urtean bi lurreko aplikazio egingo dira.

4. Erabilera: banda marroiak eta gorriak sortzen dituzten onddo hostogabetzaileen fungizidadun tratamenduak.

5. Tratamenduak burutzeko epea 2020ko abenduaren 1ean amaituko da.

b) Tratatu beharreko azalera: tratamendua Pinus radiata eta Pinus nigra sailetan baino ez da aplikatuko. Azalera horri kanpo baztertze- edo buffer-eremuak kendu behar zaizkio:

1. 50 metroko tartea herrigune eta eraikuntza guztietatik.

2. 50 metroko tartea urtegi, urmael eta hezegune guztien inguruan.

3. 50 metroko tartea lur gaineko zein lur azpiko ur-hartuneen inguruan.

4. 50 metroko tartea akuiferoen zaurgarritasun altuko edo oso altuko gisa sailkatutako eremuetatik.

5. 50 metroko tartea ur-ibilgu iraunkor guztien alde bietan.

6. 50 metroko tartea itxasotik.

*3. artikulua. Prozedura eta kontrolak.*

2.b) artikuluan zehaztutakoaren arabera, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak tratamendua jaso ahal izango duten lursailen zerrenda eta deskribapen kartografikoa argitaratuko ditu, ondoko web orrian: https://www.Gipuzkoa.eus/eu/web/mendiak-eremunaturalak/mendi-Kudeaketa/baso-Kudeaketa/baso-osasuna.

Foru agindu honetan aurreikusitako tratamenduak egin nahi dituzten pertsonek aurretik jakinarazi beharko diote Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari, web orri horretan ezarritako formatuan, adieraziz tratatu beharreko lursailak –derrigorrez aurreko atalean adierazitako zerrendan izan beharko direnak– eta web orrian eskuragarri izango den formularioa behar bezala beteta. Foru agindu honetan aurreikusitako tratamenduak ezin

En su virtud, este Diputado Foral de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

RESUELVE

*Artículo 1. Objeto.*

Constituye el objeto de la presente orden foral la regulación de las condiciones para el uso en aplicación terrestre de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75 % [WG] P/P contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en rodales de Pinus radiata y Pinus nigra de montes de Gipuzkoa.

*Artículo 2. Tratamientos.*

Podrán ejecutarse los tratamientos señalados en el artículo anterior siempre y cuando se ajusten a las condiciones establecidas en la Resolución de la Dirección General de Sanidad de la Producción Agraria, del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, de fecha 4 de agosto de 2020, por la que se autoriza excepcionalmente la comercialización y el uso en aplicación terrestre de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75 % [WG] P/P contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en rodales de Pinus radiata y Pinus nigra:

a) Productos fitosanitarios y condiciones de uso de los mismos:

1. Productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75 % (WG) P/P.

2. Dosis por aplicación: 0,1-0,2 % (1-1,4 kg producto/ha).

3. Máximo dos aplicaciones terrestres por año.

4. Uso: tratamiento fungicida contra hongos defoliadores que causan las bandas marrones y rojas.

5. El periodo hábil para la realización de los tratamientos finalizará el 1 de diciembre de 2020.

b) Superficie a tratar: únicamente se tratará en rodales de Pinus radiata y Pinus nigra. A esa superficie se le restan las zonas de exclusión o buffer:

1. 50 metros alrededor de todos los núcleos habitados y edificaciones.

2. 50 metros alrededor de todos los embalses, lagunas y zonas húmedas.

3. 50 metros alrededor de las captaciones de agua, tanto subterráneas como superficiales.

4. 50 metros alrededor de las zonas clasificadas como de vulnerabilidad de los acuíferos tipo alta y muy alta.

5. 50 metros a cada lado alrededor de todos los cursos de agua permanentes.

6. 50 m alrededor del mar.

*Artículo 3. Procedimiento y controles.*

Conforme a la delimitación del artículo 2.b), el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural publicará en la página web https://www.Gipuzkoa.eus/es/web/mendiak-eremunaturalak/gestion-montes/forestal/sanidad-forestal el listado y la descripción cartográfica de las parcelas susceptibles de tratamiento.

Las personas interesadas en la realización de los tratamientos previstos en la presente orden foral habrán de comunicarlo previamente al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el formato establecido en la citada página web, indicando la parcela o parcelas a tratar –que habrán de estar necesariamente incluidas en el listado indicado en el párrafo anterior– y remitiendo debidamente cumplimentado el formulario disponible al efecto en la página

EK\CV GAO-I-2020-04158

izango dira burutu adierazitako web orriaren bitartez Departamentuak espresuki zehaztutako lursailak ez badira.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko zerbitzu teknikoek egiaztatuko dute jasotako jakinarazpenak betetzen dituztela tratamenduak baimentzeko ezarritako baldintzak, eta hala ez bada, interesdunei jakinaraziko zaie tratamendua ezin izango dela burutu. Era berean, beharrezkoa izan daitezkeen egiaztapenak, informazio gehigarria lortzeko eskaerak edota ikuskapen bisitaldiak egin ahal izango dute, tratamenduak modu egokian egiten direla eta dagokien araudia betetzen dela ziurtatzeko.

Produktu fitosanitarioak erabiltzeko, honako dekretu honetan ezarritako xedapenei jarraituko zaie: 1311/2012 Errege Dekretua, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena (kualifikatutako aplikatzaileak eta Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofizialean erregistratutakoak).

Foru Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Foru Diputatu honi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko abuztuaren 10a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (4158)

web citada. No podrán llevarse a cabo los tratamientos previstos en esta orden foral en parcelas que no sean las expresamente definidas por el Departamento a través de la página web indicada.

Los servicios técnicos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobarán que las comunicaciones recibidas se ajustan a las condiciones en que se autorizan los tratamientos, advirtiendo en caso contrario a las personas interesadas de la imposibilidad de efectuar los mismos. Asimismo, podrán efectuar cuantas comprobaciones, requerimientos de información adicional o visitas de inspección resulten necesarias para asegurarse de la correcta ejecución de los tratamientos y del cumplimiento de la normativa aplicable.

Los tratamientos fitosanitarios serán realizados siguiendo las disposiciones del Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios (aplicadores con cualificación y registrados en el ROPO).

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 10 de agosto de 2020.—El secretario tecnico, Segundo Díez Molinero. (4158)